



Antilletan galdurik

Kepa Larrea

Saio eta Testigantza, 264

978-84-9172-348-6

2023. urtea - 160 or. - 17x24 cm

17,00 €

Gaztelako koroaren okupazioak Ameriketara irauten zuen hirurehun urte luzeetan, gizateriaren lapurreta eta genozidio handienetako bat gertatu zen. XIX. mendearen bigarren erdialdean sortutako historia nazional espainiar batek suntsipen hura ukatzeaz gain, gaitz guztien errua Inperio Espainiarraren aurkako Elezahar Beltz ospetsuari egozten dio, zeina ingelesek, frantsesek eta alemaniarrek (hau da, Gaztelako orbitatik kanpo ze goen mundu guztiak) sortu baitzuten.

Halaz ere, ez zen beharrezkoa horrelako legendarik erabiltzea konkistatzaileek Ameriketara eragindako saraski, kulturen suntsipen eta espoliazio mailaz ohartzeko. Nahikoa da Gaztelako agintari zibil, erlijioso eta militarren testuak irakurtzea, bertako biztanleei eragindako hondamendiaz eta, trukean, inbaditzaileek lortutako aberastasunaz ohartzeko. Izan ere, soldaduekin batera helburu bakarra zuten elizgizonak, epaileak eta gobernariak joan ziren: ahalik eta gastu txikienarekin etekin handiena lortzea, horretarako edozein baliabide erabilita ere.

Eta suntsipen horretan badute zerikusirik Gaztelako koroaren zerbitzura joandako euskaldunek. Azken horiei buruz ari da liburu hau: *Antilletan galdurik*.

Hala ere, abenturazale, mertzenario, gobernadore eta piraten anabasa hartan (Francisco Garai, Katalina Erauso, Bizente Ikuza edo Mixel Etxegorria, besteak beste), askatzaileak eta koroaren aurka matxinatuak ere izan baziren, atrebentzia hura beren biziaz garesti ordaindu zutenak, hala nola Lope Agirre edo Xabier Mina, zeinak Espainian gaizkiletzat eta Ameriketara heroizat hartu baitzituzten. Era berean, ez dugu ahaztu nahi izan Ameriketako jendea, hala nola Leftraru, Caupolican edo Lemba bezalako errebeldeak, espainiarrei aurre egin zietenak beren etxeak, familiak, bizimodua eta askatasuna babestearren, nahiz eta beste askotan bezala kukuak oker jo zituen.



Kepa Larrea Muxika
(Basauri, 1950)

Filologian lizentziatua eta Historian doktorea. EHUko irakaslea izan aurretik hainbat lanetan ibili da.

Tantak, *Hizpide*, *Revista de Psicodidáctica*, *Gerónimo de Uztariz* eta *Euskalingua* aldizkarietan argitaratu ditu bere lanak. Aipagarrien artean: «Ikasleen hizkuntza erroreak eta hutsegiteak» eta «Euskalduntzearen umoreak».

Horrez gain, LH eta DBHrako eskola liburuak (*Euskal Hizkuntza eta Literatura*, Erein) eta zenbait monografia kaleratu ditu: *Nola atera EGA euskara jakin gabe* (Likiniano, 2003), *Aduarren irudiez hornitua*, *Euskalduntzearen atakan* (Erein, 2005), *Itzalak harturik* (Pamiela, 2011. Juan Zelaia Saria-2010), *Mina edo libertatea!* (Pamiela, 2017), *Biba Mina! Kantuak eta kontuak* (Pamiela, 2017) eta *Xavier Mina* (Pamiela, 2018).

